


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2022-02-25 / 724 ZENBAKIA / 18. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Gobernuz Kanpoko Erakundeen lana

Andoaingo Udalak mundu zabaleko hogeita bat egitasmo diruz laguntzeko hitzarmenak sinatu ditu. Elkarreetako ordezkariak beren zeregina aurkeztu zuten / 6-7



**Kaldereroen etorrerak Andoain eta andoaindarrak inauteri giroan murgildu zituen** / 2-3



**Ospakizunak eta mozorroak ez dira Urnietan faltako. Larunbata izango da egun handia** / 3



### Pandemiaren amaierako lehen ospakizun handia

Larunbata izango da inauterietako egun handiena, Andoainen eta Urnietan / 2-3

 **ibai mendi**  
Nafar kalea, 23 - 945 33 37 24 - Hernani

Zurekin ospatu nahi dugu! **Otsailaren 28tik**  
**%70** arteko deskontuak!

*Hila esker.*

**25** urte

# LIKIDAZIOA



Jose Caballero, Imanol Arrozpide eta Ivan Guirado Udalak Balastrain industrigunean karrozentzat egokitu duen biltegian. AIURRI



2020ko Inauterietan Kolokaitos taldea Steampunkaz mozorrotu zen, zientzia-fikzioa eta fantasia generoak nahastuz. KOLOKAITOS

# Kolokaitos taldea, festarako prest

Zortzi lagun-talde animatu dira Andoainen asteburuan kaleetan inauteri giroa zabaltzera, karrozen eskutik. Hona zeintzuk: La Salle Berrozpe, Poperoak, Kolokaitos, Lupercales, MG, EIUP, Barrigada eta Gurun Gele

## Xabier Lasa ANDOAIN

Udalak utzita, Balastrain-Matxineako industrialdean dagoen biltegi batean bildu dituzte beren orgak, talde gehienek. Bertan topatu ditugu Kolokaitos taldeko kideak azken prestaketa lanetan murgilduta, eta Iban Guiradok azaldu dizkigu asteburuari begirako xehetasunak.

**Bereziak izango dira aurtengo inauteriak; ohiko desfilerik ez da izango, osasun egoera dela-eta. Horren ordez, zortzi orgak herriko plazetan sakabanatuta ibiliko zarete. Zer iruditzen formatu berria?**

Dagoenari heldu behar zaio! Halabarrez asmatutako berrikuntzak funtzionatzen duen ala ez ikusteko, probatu egin behar da lehenbizi. Larunbat arratsaldean ohiko desfileari ekin, eta 19:00ak aldera Goikoplazara iritsita festak kitto egitea izan zen Udalaren lehen proposame-

na, baina taldeek ez genuen egokia ikusi. Azkenean, larunbat goizean hasi eta igande bitarte karroza bakoitzak plaza bat hartzea izan da aukerarik bideragarriena. Horrela, talde bakoitza dagokion plazan ibiliko da, soilik larunbat iluntzean Goikoplazan bilduko gara zortzi orgak. Hori bai, gaueko 21:00etarako festa bukatutzat ematea egokitzen zaigu.

**Zuek nondik ibiliko zarete?**

Larunbat goizean hasita eta igandea bitarte, lau plaza egokitu zaizkigu: Goikoplaza (goia), Zumea plaza, Goikoplaza (behea) eta Bastero plaza.

**Zer esango zenieke desfile ikusi zaleak diren herritarrei?**

Plazaz plaza ibili dadila, gozatu dezala kuadrilla bakoitzak prestatu dituen mozorroekin, koreografiakoarekin, ikuskizunarekin..., eta gorputzak eskatzen

badio, murgildu dadila kuadrillaren giroan. Eta gainerantzean ere, beren aldetik antolatu dezatela inauteriak nahi duten eran, dauden festarik herrikoienak eta parte-hartzaileenak baitira.

**Jakin al liteke zuek zertaz mozorrotuko zareten aurten?**

"Alice Mirarien Herrialdean" hartu dugu gaitzat. Karakterizazioari dagokionez, emakumeak "Bihotzetako erreginak" izango dira, eta mutilak "Kapela eroak". Koreografia txukun samarra prestatu dugu, lau bat abestiez osatuta. Entseguak egin, egin

**ANDOINGO INAUTERIETAKO EGITARAUA AGENDA ATALEAN KONTSULTA DAITEKE**

ditugu, eta duin nahiz zabar dantzatu, hitz ematen dut ikuskizuna ziurtatuta daukala hurbiltzen den publikoak.

**Nola ibili zarete aurten, zuen karroza antolatzeko?**


Orain hiru bat urte karabana zahar bat erosi genuen inauterietan espreski erabiltzeko, eta bere gutxieneko mantenimenduaz gain, urtero egokitzen zaigu prestaketa lanak egitea, hau da, apaintzea, margotzea, elementu berriak eranstea... Egia esan, iraila aldera ekiten diegu antolaketa lanei: diru-eskotea sortu, gaiaren inguruan irudimena astintzen hasi, mozorroak erosi... Ardurak gure gain hartzen ditugu, baina aitzakia polita izaten da lagunok elkartzeko egitasmo dibertigarri baten inguruan.

**Igandean Poperoak, Lupercales eta zuek animatu zarete igandera arte luzatzeko inauteri giroa.**

Hamairu lagunek, heldu zein haurrek osatzen dugu kuadrilla. Familia-giroko inauteriak dira gureak, eta ez daukagu aukera askorik larunbat gauean ordu txikitian segitzeko parrandekin; horrek inauteriak igandera bitarte luzatzea errazten digu. Azken urtetan, jai batzordean igandea indartzearen alde matraka eman dugun taldeetako bat izan gara. Oso hutsa geratzen baitzen, larunbateko jai poto-loaren ostean. Zorionez, azken bi urtetan lortu zen herri-bazkaria antolatzea, eta nik uste frogatuta geratu zela formula egokia dela festa gogoari eta festa giroari jarraipena emateko, eta batez ere, kuadrillen arteko harremanak sendotzeko. Egoera normaltzen denean, bazkariaren ideia berrabiarazi egin behar litzateke. Urtez urte sustraitzen joango litzateke Andoainen.

## Inauterietan hutsik egin gabe

Inauteriak etorri aurreko hilabeteetan jartzen dute abian antolaketaren "makinaria" Kolokaitos taldeko kideek. Iban Guiradok aitortu duenez, "halako abenturatan murgiltzeko ondo txertatuta behar da eduki gorputzean Inauterien arra. Gutako bakoitzak txikitatik bizi izan ditu Inauteriak modu batera edo bestera. Zertaz ez ote garen jantzi, Andoingo kaleetan festaz gozatzeko! Eroskiko erosketa-orga bat lortu, irudimena aske utzi eta edozertaz mozorrotzeko pronto dauden festa zale horietakoak gara. Gurekin kalera ateratzen diren haurrei ere transmititzen zaie Inauterien jai, eta nahitaez barneratuta geratzen zaie suharra".



## Kaldereroen kalejira



Kanpaldia jarri zuten Goikoplazan, Kaletxikitik iritsi orduko. AIURRI



Txikienak karrozan ibili ziren batetik bestera. AIURRI



Oiartzabalek San Juan Bataiatzailean egindako bisitaldia girotu zuen. AIURRI



Kaldereroen bozeramaileak hizlari aritu ziren Udaletxeko balkoitik. AIURRI



Gora Kaletxiki txarangak herriko kaleak alaitu zituen. AIURRI



Abesbatzako kideek saioa eskaini eta gero txaranga giroan murgildu ziren. AIURRI

Larunbat arratsaldean Gora Kaletxiki txarangako musikariak, Udal Musika Eskolako Helduen abesbatza eta konpartsara batu diren hainbat haur eta heldu aritu ziren Kaldereroen tradizioa biziberritzen. San Juan

bataiatzailean bisitaldia egin eta gero, Kaldereroen erreginak eta bere laguntzaileek Udaletxeko balkoitik umorez betetako mintzaldia egin zuten, hainbat gai hizpide hartuta: Andoango aparkaleku falta, Goiburua auzoko

auzotarrak, udaltzainak, alkatea... Herriko arazoak konpontzeko gogoz heldu ziren, herrikideei hainbat proposamen luzatu zizkietelako. Abesbatzak Goikoplazan emanaldia eskaini eta gero, kantariak txaranga doinuekin

dantzan aritu ziren. Extebe Lopez de Munain goiburuarren kamioiaz lagunduta, kaldereroen konpartsak Kale Nagusiko bidea hartu zuen. Iluntze aldera iritsi ziren Zumea plazara, kalejirari amaiera eman asmoz.

## Badatoz inauteriak Urnietara

Larunbatean ospatuko dira. Zenbait ekintza iragarri dituzte, urnietarrek festaz goza dezaten

### Erredakzioa URNIETA

Aurreko urtean ospatzea posible izan ez bazen ere, badatoz aurten herrira inauteriak. As-teburu honetan, askotariko hitzorduak izango dituzte urnietarrek. Aitzakiarik ez, beraz, mozorrotzeko eta kalera ateratzeko.

### Poxta Zahar gazte taldeak antolutako hitzorduak

Egun osoko egitaraua antolatu du elkarteak, "margolanak" gaia ardatz. Eguerdiko 12:00etan, trikipoteoa abiatuko da Guria-tik hasita, tabernaz taberna, Egape Ikastolako frontoira bitarte. Bertan, 14:00tan, herri bazkaria izango da *I love paella* catering-aren eskutik. Oraindik ere bada aukera tiketa erosteko, elkartearekin harremanetan ipinita. Bestalde, arratsaldean girotzeko, kontzertua izango da herrian, The Roristak taldearen eskutik.

### Urnietako Udalak bi ekitaldiren berri eman du

Udalak bi jarduera prestatu ditu hainbat elkarteren eskariak kontuan hartuta. Batetik, Kitadelpare txaranga abiatuko da San Joan plazatik eguerdiko 12:00etan eta herriko kaleetan barrena arituko da 14:00 arte. Bestetik, Dj Katxorro izango da Etxeberrri Plazan: Mikel Franco disko jartzaileak giroa animatuko du bere musikarekin 18:00-21:00 bitartean. Sarrera librekoa izango da.

### Etxeberrri elkartearen proposamena, arratsalderako

*Aliceren Abenturak Lurralde Miresgarrian* konpartsa aterako du aurten elkarteak. Hala, San Juan plazara joango dira 16:00etan; beranduago, hots, 18:30ean, Etxeberrri Plazara jaitziko dira, prestatu duten ko-reografia herritarren aurrean dantzatzeko asmoarekin.

## KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA

## Emakumeak zientzian

Emakumeek eta neskek zientzian sarbide eta parte-hartze erabatekoa eta berdintasuneko lortzeko, Nazio Batuen Erakundeak otsailaren 11 Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna izendatu zuen.

Emakumearen jakituria eta ekarpena eskolako diziplinetan nabarmentzeko eta zientzia munduan dauden emakumeak ikusgai egite aldera, jarduera ezberdinak antolatu genituen Egape ikastolan.

Lehen Hezkuntzan, Garazi Urdangarin gonbidatu genuen bere testigantza gertutik entzuteko. Garazik medikuntzako ikasketak hasi ditu aurtengo ikasturtean eta emakume bezala, nola bizi duen unibertsitateko esperientzia kontatu zigun. Etorkizunera begira zein aukera dituen ere azaldu zituen.

Zientzia arloaz gain, bere zaletasunaren gainean aritu zaigu hizketan, pilotaz (palaz) alegia. Zazpi urterekin hasi zen palan jokatzeko, eta, egun bizi duen egoera eta dituen aukeren berri eman digu.

Bosgarren eta seigarren mailakook arretaz jarraitu dugu Garazik kontatutakoa. Mila esker, Garazi, eta zorte on zure ikasketetan!!!



Garazi Urdangarin. EGAPE

Bigarren Hezkuntzan berriz, gure helburua geletan zientzian diharduten emakumeen lana ikustaraztea izan zen, jarduera zientifiko-teknikoak gizezkoen kontua direnaren ustea apurtzea eta neskek zientziako ikasketak ere hauta ditzaten sustatzea.

Horretarako Batera Gara taldeko partaideok galdetegi-jolas bat prestatu genuen eta ikasleak DBHko maila guztietako zientzietako arloetan gaia lantzen aritu ziren. Egun garrantzitsu hura gogoan izan dezagun, ikasle guztiei orri-markagailu originalak banatu genizkien.



Garazi Urdangarinaren zaletasuna hizpide izan zuten, ikastolan. EGAPE

## PRENTSA-OHARRA

EUSKO JAURLARITZA GASTEIZ

## Gogora institutua

Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak talde eragile bat eratuko du, EAEn memoriaren gizarte-erakuntzarako oinarri partekatuen dokumentua prestatzeko. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak honako hau nabarmendu du: "Gertakarien errealitate objektiboa, gertakari guztiak eta guztien memoria –bereziki biktimena, biktima guztien– dira proiektu honen ardatzak".

Talde eragile hori ibilbide ezaguna eta eztabaidea duten hiru historialari gazte eratu dute: Eider Landaberea Abad doktorea, Virginia Lopez de Maturana doktorea eta Unai Belaustegi Bedialauneta doktorea. Biktimei dagokienez, Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluko partaide bi izango dira, Josu Elespe (ETAk 2001. urtean erail zuen Froilan Elesperen semea) eta Maria Jauregi (ETAk 2000. urtean erail zuen Juan Maria Jauregiren alaba), eta hirugarrena Axun Lasa izango da (GALek 1983an eraildako Joxean Lasaren arreba).

Talde horrek autonomiaren eta diskrezioaren printzipioei jarraituko die, martxotik urrira bitartean, eta ondorioak 2022ko Memoria Egunaren esparruan aurkeztuko ditu.

### Lau oinarri

Gogorako Zuzendaritza Kontseiluak Euskadin memoriaren gizarte-erakuntzak lau oinarri izan behar dituela adostu du: diziplina historikoaren metodo zientifikoak, biktimen eta haien esperientzien erreferentzialtasuna, giza eskubideen ikuspegia eta xede konstruktiboa nahiz inklusiboa.

## KOMUNITATEA

SALESIAR IKASTETXEA URNIETA

## Lanbide heziketako Erasmus-bekak



Atzerrira joango diren ikasleak, argazkian. EGAPE

Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleei zuzendutako programa bat da. Honi esker, bigarren kurtso bukaeran ikasleek egin beharreko praktikak atzerriko enpresetan egiteko aukera izango dute. Hamahiru asteko egonaldia izan ohi da eta, besteak beste, hurrengo helburuak lortu nahi izaten dira:

1. Gaitasunak lortzeko laguntza, garapen pertsonala hobetu eta lanerako aukerak zabaltzea.
2. Atzerriko hizkuntzen dominioa hobetzea.
3. Beste kultura eta herrialde batzuk ezagutzea.
4. Atzerrian egondako denboran gaitasunak lortu direla ziurtatzea.

**Sei ikasle joango dira atzerrira** Aurtengoan Goi eta Erdi mailako zikloetako sei ikasle joan dira atzerrira aipatutako praktikak egitera. Automatizazioa eta Robotika Industrialak ikasten ari den

Markel Mujika eta Argitalpen Inprimatuen eta Multimedia Argitalpenen Diseinu eta Edizioa ikasten ari den Enara Caballero Milanera (Italia) joango dira. Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak ikasten ari den Julen Manterola, berriz, Palermora (Italia). Erdi mailako Inprimaketa Grafikoa ikasten ari diren Ariñe Martinezek eta Beñat Urtazak ere Italiarako bide bera hartu dute, Palermora joango baitira horiek ere. Azkenik, Iñaki Izagirre, Mantentze-lan Elektromekanikoko ikaslea Poloniako Rzeszow-era.

Guztiak ekainean bueltatuko dira, espero dugu, hilabete horietan esperientzia positiboak bizitzea, hori da behintzat guk beraientzat nahiko genukeena.

**IKASTETXEKO SEI IKASLE ITALIAKO ETA POLONIAKO HIRIBURU EZBERDINETAN ARIKO DIRA, EKAINERA ARTE**



AIURRI



GKS



LSB

## Inauteri giroko erakusleihoak

Aurreko asteburuan hasita, Andoaingo Kale Nagusiko Keinu, Gamer edota Argi ileapaindegia inauteri giroko erakusleihoak prestatzen hasi ziren. Zumea kaleko Arruti gozotegian Ituren eta Lantz herrietako inauterietako pertsonaia ezagunak ipini dituzte erakusleihoan. Asteburuari begira giroa berotzen ari da, beraz.

## Jardunaldiak

GKS mugimenduak jardunaldiak antolatu ditu. Teknologia berriak eta hipersexualizazioa hizpide izan zituzten Lekaion, eta bertara dozenaka lagun hurbildu ziren.

## Nazioarteko saria lortu dute

“21st Century Skills” lehiaketan La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak nagusitu dira. Finlandia, Herbehereak, Eskozia eta Irlandako ikasleak hartu zuten parte lehiaketan. Buruko osasuna oinarritzat harturik, negozio ideia baten proiektua burutu dute. Irene Martinez, Alaine Mayordomo eta Jon Esnaola ikasleek “Eunoia” (pentsamendu polita, grekeraz) egitasmoa aurkeztu zuten.

## GORA ETA BEHERA



## Lapurreta Belabi kaleko aparkalekuan

Larunbat gauean gertatu zen lapurreta, mugimendu handia izaten den toki batean. Seat Leon FR markako auto bati lau gurpilak lapurtu zizkioten. Katua erabilia autoa altxatu eta gurpilak kendu zizkioten, ordezko lau gurpil zahar utzita. Ezusteko galanta hartu zuen jabeak.



AIURRI



Joan den ostiralean, Udalaren eta egitasmo horien Gobernu Kanpoko Erakundeen arteko hitzarmen sinatze-ekitaldia egin zuten udaletxean. AIURRI

#### Xabier Lasa ANDOAIN

Udaletzeko pleno-aretoan egin dako sinadura-ekitaldian Gobernu Kanpoko Erakunde horiek egiten duten lana azpimarratu zuen Maider Lainez Andoingo alkateak: "Eskerrak eman nahi dizkizuet hain baldintza zailtan egiten duzuen lanagatik. Nahiz eta fisikoki oso urruti gauden herrialde hauengandik, zuen lanari esker, oso hurbil sentiarazten gaituzue eta aukera ematen diguzue hain proiektu aberasgarri eta beharrezkoetan parte izateko. Egiten duzuen lanagatik oso harro sentitu behar zarete. Izan ere, gu oso harro gaudue zuen sareko kide izateaz".

Elkarteen ordezkariak, nork bere egitasmoari buruzko xehetasunak azaldu zituzten udaletxean egindako ekitaldian.

Hona, segidan, hitzarmenean sartu diren elkarteak, beren egitasmoen xehetasunak eta jasoko duten kopurua:

#### Mariaren Lagundia FISC

Haur eta nerabeek sexu-indarkeriarik gabeko bizitza izateko duten eskubidea indartzea. Barranquilla (Kolonbia). 5.200 euro.

#### Bakerako Lankidetzaren Batzarra

Elikatzeko eskubidea eta diru-sarreraren iturria Coubalan (Senegal). 6.500 euro.

#### J.A. Freyter Romero Elkarte

Nazioarteko erantzukizuna gizateriaren aurkako krimenetan - II. Fasea. 5.000 euro.

# Ongizatea mundu zabalean garatzeko bultzada

Garapen bidean dauden herrialdeekiko Lankidetzaren Planari jarraipena emanez, Andoingo Udalak 21 proiekturi diru-laguntzak ematea erabaki du, 2022ko urteari begira; guztira, 139.850 euro bideratu dira

#### Derandain Fundazioa

Genero berdintasunaren aldeko hezkuntza emantzipatzailea. Kolonbia. 6.100 euro.

#### Ingenieria para la Educacion

Nyabunyuni lehen mailako eskola berreraikitzea eta osasun-instalazioak jartzea. Idjwi irla (Kongoko Errepublika). 9.000 euro.

#### Ojos del Mundo

Begien osasuna hobetzea. Oruro (Bolivia). 6.500 euro.

#### Garabide

Mapuduguna hizkuntza biziberritzeko ekarpena: Nagusien irakaskuntza sendotzeko plana, kimelfeen gaitasun tekniko indartuta. Araucania (Txile). 2.500 euro.

## ANDOINGO UDALAK MUNDUAN BARRENA DABILTZAN 21 EGITASMO DIRUZ LAGUNDU DITU

#### Fasfi

Santa Candida barnetegiko Garo tribuko nesken elikadura-, hezkuntza- eta osasun-baldintzak hobetzea: Netrakona (Bangladesh). 5.000 euro.

#### Salvamento Maritimo Elkarte

Aita Mari Maydayterraneo erreskate ontzia. Nazioarteko Urak. 9.000 euro.

#### Honek GKE

Putzu zulatu bat eraikitzea. Totogalpa (Nikaragua). 5.000 euro.

#### Nepaldala elkarte

Ikasi proiektua. Kathmandu (Nepal). 5.000 euro.

#### Activos por un Mundo Solidario

Guk ere Ahal Dugu egitasmoa: dibertsitate funtzionala duten pertsonak gizarteratzeko eta haien bizi-kalitatea hobetzeko baliabide-zentroari laguntza ematea. Diriamba (Nikaragua). 6.500 euro.

#### Behar Bidasoa

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak indartzea eta Nekazaritza eta barazkiak landatzea. Kabuga, Kamonyi (Ruanda). 9.000 euro.

#### Zaporaak

Errefuxiatuentzako elikadura duina eta osasungarria bermatzeko egitasmoa. Lesbos, Kara Tepe (Grezia). 5.000 euro.

#### Chiapas Enea

"La Independencia" eta "La Libertad" komunitateak hornitzeko ur-putzua. Chiapas (Mexiko). 6.500 euro.

#### Taupadak

Giza garapenerako eta indigenen nortasunaren aldarrikapenerako doako musika-hezkuntza eskaintzeko egitasmoa. San Ignacio de los Moxos (Bolivia). 9.000 euro.

#### Proyde Proega Fundazioa

Gazte profesional behartsuei laneratzeko laguntzeko egitasmoa. N'Djamena (Txadeko Errepublika). 9.000 euro.

#### Gipuzkoako Oscar Romero

Emakumeen ekintzailetasunari laguntza enplegua eta diru-sarrerak sortzeko. Tacuba (El Salvador). 6.500 euro.

#### Calcuta Ondoan

Gaixotasun mentala duten emakumeentzako errehabilitazio- eta birgizarteratze-prozesuak indartzea. Kerala (India). 6.500 euro.

#### Serso San Viator

Lau ikastetxetako ikasleentzat edateko ura bermatzeko egitasmoa. Artibonite (Haiti). 9.000 euro.

#### Abay Euskadi Nilo Azul

Haur-eskola mantentzea. Gaba Kemisa, Oromia (Etiopia). 6.500 euro.

## Hiru egitasmo, gertutik



Laida Pino. AIURRI

### Formakuntza Txad herrialdean

LAIDA PINO PROYDE-PROEGA FUNDAZIOA

"Proyde-Proega fundazioa La Salle kongregazioko eskoletako Gobernu Kanpoko Erakundea da, eta, besteak beste, Afrikako Txadeko hiriburu N'Djamena kokatzen den hezkuntzako egoitza teknikoan parte hartzen ari gara. Bertan, formazio teknikoa eta profesionala eskaintzen zaie gazte behartsuei, lan-munduan sartzen laguntzeko. Elektrizitatea, igeltserotza, iturgintza, informatika eta abar irakasten zaie, hiru ikasturteko ikasketan. Denera, egun, 370 ikaslek ikasten dute ikastetxe horretan.

Orain arteko ikasketa metodologiko eta teknikoekin jarraitzeko asmoa dauka eskolak, baina zaharkituta geratzen ari dira bertako materiala eta azpiegiturak. Berritu nahi bada, behar-beharrezkoa da kanpoko laguntza. Gauzak horrela, Andoaingo Udaletik jasotako 9.000 euroko diru laguntza, materiala eta azpiegitura zaharkitu hori hobetzeko eta eguneratzeko erabiliko da.

Bestalde, aipatu nahi nuke La Salleko ikasleekin sentsibilizazio kanpainak egiten ditugula ikasturtean barrena, beti ere ardatz edukita garapen bidean dauden herrialdeekin egiten diren lankidetzak".

**FORMAKUNTZA ESKAINTZEN DUEN IKASTETXEAN ERABERRITZE LANAK EGIN BEHAR DITUZTE**



Maria Eugenia Iparragirre. AIURRI

### Prebentzio lana Kolonbian

MARIA EUGENIA IPARRAGIRRE MARIAREN LAGUNDIKO FISC

"Kolonbiako Barranquilla kokatzen den El Bosque auzoan garatzen da sentsibilizazio eta kontzientziaziorako proiektua. 2020an hasi zen, beste hainbat udalen laguntzari esker, eta, aurrean, Andoaingo Udalak emandako 5.2000 euroko diru-laguntzari esker, jarraipena emango zaio. Haurrak, adingabeak eta emakumeak eskubide-titulartat hartzea eta sexu-indarkeriarik ez jasateko zori zaien giza eskubidea lantzea du helburu nagusi proiektuak; eta, zehazki, horiei guztiei arreta integrala ematea bultzatu nahi du, horretarako, gurasoei eta familiari prebentzioan lagunduz. Izan ere, askotan, zuzeneko lan terapeutikoz gain, prebentzio-eta kontzientziazio-lanak ere egin behar izaten dira familia giroan, ez baitute arazoak kontzientzia edukitzen.

Mariaren Lagundiak mundu zabalean presentzia dauka, eta ahaleginak egiten ditu mundua hobetu dadin, aurrera eramanez zenbait lankidetzako proiektu. Laida Pinok aipatu duen eran, guk ere hemengo ikastetxetan ikasleekin elkartzaren kontzeptua lantzen dugu. Munduan garatzen ditugun proiektuen berri ematen diegu, beraiek ere parte-hartzaile senti daitezen saiatzen gara".

**ADINGABEEK SEXU-INDARKERARIK EZ JASATEKO KONTZIENTZIAZIO LANA EGIN NAHI DUTE**



Maiteder Sasieta. AIURRI

### Maputxeekin lankidetzak

MAITEDER SASIETA GARABIDE

"Garabide elkarteak 2005ean sortu zen, hizkuntza txikien sustapenaren gaineko hausnarketak bultzatuta: Euskal Herrian zer edo zertan esperientzia pilatu bada, hori euskararen biziberritze lanetan izan da; bada, eskarmentu hori zergatik ez partekatu munduko beste komunitateekin? Egunotan prentsan irakurri dugu nola hil den Txilen, yaganera hizkuntzan mintzatzen zen azken hiztuna. Bada, hizkuntzen galtze-prozesu horien aurka ahalegindu gaitzekela pentsatzen dugu. Andoaingo Udalaren laguntza Txileko maputxeekin lankidetzan jarduteko baliatuko dugu; mapudunguna den beren hizkuntza irakaskuntzan sustatzeko, hain zuzen. 2017an, Txilen irakaskuntzan aritzen den emakume bat heldu zen hona; Zornotzako barnetegiaren funtzionamendua ezagutu zuen, eta orduantxe, egundoko deskubrimendua egin zuela irudituz itzaion: "Hauxe da maputxeek behar duguna!". Era horretan, Zornotzako barnetegi irakasleak eta Araucaniako irakasleek lankidetzari ekin zioten. Hemengo irakasleek hango irakasleei unitate didaktikoak, hizkuntza-kurrikuluma eta kurtsoen egituraketa eskainiko dizkiete, eta aldi berean, soziolinguistikan trebatuko dituzte".

**MAPUTXEKIN LANKIDETZAN JARDUNGO DUTE; MAPUDUNGUNA HIZKUNTZA SUSTATZEKO**

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Aiurri eskuragarri:**  
Etxez ebeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus) [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetza:**  
Garbifé Ugartemendia. [idezkaritza@aiurri.eus](mailto:idezkaritza@aiurri.eus)

**Publizitatea:** Fer Irazu. [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

**Banatzaleak:** Pocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**  
[diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus) | [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus).  
Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

**Aiurriko harpidedunak**  
ezinbestekoak dira.



**andoaINDARRA**  
**euskaraz**



Esti Mujika EH Bilduko zinegotzia, Txixu Ruiz EAJ-PNVko zinegotzia, Maider Lainez alkatea, Petri Romero PSE-EEko zinegotzia, Haizea Brosa kartelaren egilea eta Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikaria Martxoaren 8ko egitarauaren aurkezpen-ekitaldian. Xehetasun guztiak bideoan ikusgai, Aiurri.eus webgunean. **AIURRI**

# Martxoaren 8ko egitaraua hilabete osora zabalduko da

"Indartsu" du Haizea Brosa lartza andoaindarrak diseinatu duen kartela. Ildo beretik doa egitaraua. Udal lansail ezberdinek eta gizarte eragileek proposaturiko hitzorduekin hilabete osora zabalduko da egitaraua

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Pandemia iritsi bitarte, feminismoaren aldeko borroka nagusi zen kalean, gainerako gizarte ekimenak txiki utziz. Bi urte luze eta gogor igaro ondoren, mobilizazio handiak espero dira. Baina eguna iritsi bitarte zalantza hori ez da argituko. Erabat argi dagoena gizarte eragile eta udal erakunde ezberdinen konpromisoa da. Andoainen egitarau oparoa aurkeztu dute, hilabete osoan garatuko dena.

Maider Lainez alkateak aurkeztu berri den egitarauan parte hartzeko dei egin zien, "emakumezkoei zein gizonezkoei". Hitzaldia, ikus-entzunezkoak, musika, antzerkia... Osagairik ez du faltako aurtengo egitarauak.

**ANTZERKIA, MUSIKA, IKUS-ENTZUNEZKOAK, TAILERRAK... OSAGAIRIK EZ DU FALTAKO EGITARAUAK**

## "Plaza gurea da"

Ostegun honetako plenoan bidea emango diote ekimenari. Aurkezpen-ekitaldian ez zuten xehetasun gehiegirik eman nahi izan osteguneko plenoa pasa bitarte. Udalak formalki hasi behar duen prozedura da, antza denez tokizen bati loturikoa, eta prozedura formala igaro ostean xehetasun gehiago eskainiko dituzte. Martxoko lehen larunbatean hiru orduko ekitaldia iragarri dute. Astearen amaieran, beraz, aditzera emango da egitasmoa.

## Aurtengo egitaraua

Andoingo udaleko Kultura, Kirola, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun sailak murgildu dira antolakuntzan, gizarte eragilerek batera.

### MARTXOAK 3, OSTEGUNA Hitzaldia

"Transfeminismoa", Andoingo Asanblada Feministaren eskutik. Hizlaria: Josebe Iturrioz. Ordua: 18:30. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 4, OSTIRALA Kontzertua

Afrika Bibang, "Ispiluaren Aurrean" diskoa aurkeztera dator. Ordua: 20:30. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 4-APIRILAK 1 Erakusketa

"Luminineszenteak", Igone Mariezkurrena kazetariaren eta Irantzu Pastor argazkilariren eskutik. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 5, LARUNBATA Ekimena

"Plaza gurea da", emakumeen nazioarteko egunaren ospakizuna. Ordua: 10:00-13:00. Tokia: Bastero plaza.

### MARTXOAK 8, ASTEARTEA Tailerra

Pin lantegia eta liburu irakurketa. Ordua: 17:00. Tokia: Ludoteka.

### Manifestazioa

Andoingo Asanblada Feministak antolatuta. Ordua: 18:30. Abiapuntua: Goikoplaza.

### MARTXOAK 10, OSTEGUNA Film emanaldia

"Big eyes", benetako gertaeretan oinarrituta. Ordua: 18:30. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 11, OSTIRALA Ikastaroa

Autodefentsa ikastaroa. Ordua: 18:00. Tokia: Gazte lokala.

### Ikuskizuna

Flamenko ikuskizuna: "Un grito... de mujer", Katxalin elkartearen aldeko emanaldi berezia. Zuenak antolatutako ekitaldia. Ordua: 20:00. Tokia: Bastero.



HAIZEA BROSIA IARTZA

### MARTXOAK 12, LARUNBATA Tailerra

Txapa lantegia. Ordua: 17:30. Tokia: Gazte lokala.

### MARTXOAK 14, ASTELEHENA Aurkezpen ekitaldia

"Julene Azpeitia: emakume aitzindaria euskal literaturan". Ordua: 18:30. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 15, ASTEARTEA Dokumentala

"Woman". Ordua: 18:30. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 17, OSTEGUNA Dokumentala

"Gure hots". Leire Zinkunegi eta Arrate Fernandez. Ordua: 18:30. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 19, LARUNBATA Kirol jarduera

Buruntzaldeko II. pala topaketa. Ordua: 17:00-20:00. Tokia: Arrate.

### MARTXOAK 24, OSTEGUNA Mahai-ingurua

"Emakumeen kirolaren ertzak". Ordua: 19:00. Tokia: Bastero.

### MARTXOAK 25, OSTIRALA Antzerkia

"El sol de York" antzezlan. Ordua: 20:30. Tokia: Bastero.





Haizea Brosa Iartza. AIURRI

## "Indartsu", kartel irabazlea

Haizea Brosa Iartza andoaindarra izan da aurtengo irabazlea. 14 lan ezberdinen artean, berea izan da epaimahaikideek aukeratu dutena. Parte hartzea handituz doalako poza agertu zuen Petri Romero Berdintasun zinegotziak. Egileak 450 euroko saria jaso du, erosketa-bonoetan gastatu ahal izango duena. Hauxe, irabazlearen azalpenak: "Emakume asko ikustea nahi nuen, eta baita M letra agertzea ere. Indartsu izena jartzea erabaki dut emakume guztiak halakoak garelako. Jatorri ezberdineko emakumeak ipini ditut, aurkeztu ditudan proposamen guztietan egin izan dudana bezala. Izan ere, martxoaren 8a nazioarteko emakumeen eguna da".



GASTEIZKO UDALA

## Transfeminismoa hizpide

Josebe Iturriozek urteak daramatza gaiaren lanketa egiten. Honakoa adierazi zuen Gasteizen, gai berari buruzko hitzaldian: "Feminismoaren subjektuak dira gorputz oprimituak, baztertuak, arrazializatuak, inbalidoak edo horrelako gorputz asko daudenak, generorengatik ere zeharkatutak daudenak eta mugimendu feministaren subjektu edo aliatu izan daitekeenak"



AIURRI

## Hainbat emakumeren lekukotza

Arrate Fernandez Itsaso zinegile andoaindarrak Durangoko Azokan aurkeztu zuen "Gure Hots" dokumentala. Nekazaritza, ekonomia, soziologia, politika, kulturagintza... Jendarte bizitzaren hainbat esparrutan ibilbide luzeko hamalau emakumeren testigantzak bildu ditu. Gogoeta mamitsuak jaso dituzte dokumentalean.

## Julene Azepeitia idazlearen biografia biltzen duen liburua

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

"Askatasun eguzkia baino beharrago" du izenburu nagusi Xabier Altzibar irakasleak argitaratu duen saiakera luzea. Julene Azepeitia idazle zumaierren bizitza eta obrari buruzkoa da. Lan horrek idazleari inoiz eskaini zaion ikuspeirik zabalena



ZIRRIARRA

eskaitzen du. Euskal kulturagintzaren barruan Pizkunde izeneko mugimendua sortu eta bultzatu zen XX. mendearen lehen herenean, bereziki EAJren bultzada jaso zuen, eta asko izan ziren mugimendu horren baitan jardun zuten berriemile eta idazleak Euskal Herrian barrena. Mugimendu horren baitan sartu zen Julene Azepeitia irakasle eta idazle zumaiera eta gerra garaiko etena etorri zen arte lan oparoa egin zuen, neurri handi batean 1936ko gerrak eta gerraosteak zokoratu eta ahanzturara kondenatu zutena. Gerraostearen

gogorrena igaro ondoren, bere bizitzaren azkenengo urteak bitarte berriro ere idatzi eta argitaratzeari ekin zion arren, bere obraren zati handia ez da behar bezala ezagutzen, bereziki gerra aurrekoa, eta Julene Azepeitia ezaguna dugu gehienbat bere ipuin liburuengatik.

Xabier Altzibar irakasleak Julene Azepeitiaren bizitza osoko lanaldiaren ikuspegia eskaintzen digu eta aukera ematen zuzenean aurreneko artikulua eta idazlan guztiak elkar bat eginda ezagutzeko. Ikerlana bultzatu eta argitaratu duen MLKBaren iritziz, Julene Azepeitiak uste baino eragin handiagoa izan zuen bai literaturan bai XX. mendearen lehen erdiko egintza pedagogikoetan.

Liburua Larramendi Bazkunaren on-line dendan eros liteke dagoeneko. Eta Andoaingo eta beste herrietako liburutendetan eskuragarri izango da.

### Lehenik, Zumaian, eta, Andoainen, jarraian

Liburuaren protagonista zumaiera izanik, Zumaiaiko Alondegia Kultura Etxean aurkeztu zuten liburua joan zen otsailaren 23an. Martxoaren 14an Andoainen aurkeztuko dute, martxoaren 8ko ekitaldien baitan.

## Hemeroteka: Mila eta ehun lagunetik gora 2019ko martxoaren 8ko manifestazioan

Ordukoaren pareko manifestazio gutxi gogoratzen dira Andoain aldean. 2019ko martxoaren 8ko hartan (ostirala zen) Aiurri astekariak Agustin Leitza kalean kamera finko bat ipini zuen. Manifestazio osoa igarotzeko sei minututik gora behar izan ziren, eta zenbatzen hasita mila eta ehun lagunetik gora bildu ziren. Manifestariei erreparatuta, deitzaileek adin, arraza, genero

eta sinismen ezberdineko herrikideak erakartzea lortu zuten: adinekoak, gazteak, haurrak, emakumezkoak, gizonezkoak, zuriak, beltzak eta baita beloa zeramatenak ere pankarta beraren atzean elkartu ziren.

Argazkilariek manifestazioaren irudi ikusgarriak egiteko aukera izan zuten Goikoplazan, Kale Nagusian behera edota Zumea

plazako edozein leihotan jarrita. Distantzia batera jarrita, masa bat zen irudikatu zitekeena. Argazki on baten bila, Guipuzcoano parean dagoen eserlekura igo ziren hainbat argazkilaria. Bertatik Santa Krutz elizara begira jarriz gero, jendea besterik ez zen ikusten.

Urte haietan feminismoaren aldeko ekitaldiak izan ziren jendetsuenak.



2019ko manifestazioa. AIURRI



Riconek Konposizio Saria irabazi zuen, sei piezekin: Sendabide, Istoriozale, Ipurtargien Bals-a, Biotzez, Izar Euri eta Gauguin Bleu. AIURRI

# "Denborarekin nire estiloa garatzen joan naiz"

**UXUE RICON ULANGA** PIANISTA ETA KONPOSATZAILEA

Konposatzaile gazteei begira, Luis Fraca saria irabazi berri du Andoaingo Piano Jaialdian. Urnietako musikaria pozarren dago, konposatzaile lanagatik saritu dutelako

**Xabier Lasa** ANDOAIN

**Luis Fraca konposizio saria irabazi duzue berriki, Piano Jaialdian. Nola hartu duzue saria?**

Pozik, jakina! Arrazoi bat baino gehiago dauzkat sentimendu hori edukitzeko: sortu zenetik, gertutik bizi izan dudana Andoaingo Piano Jaialdian eman didate saria, eta, gainera, sormen-lanen bidetik segitzeko bultzada izango da. Bestalde, sariak badauka bestelako berezitasunik: Andoaingo udal musika eskolako zuzendari izandako Luis Fracaren

izena darama sariak. Izan ere, nire amaren irakaslea izan zen, eta gogoratzen naiz, 8-9 urte nituela, nola etorri zen behin etxera, bisitan. Etxeko pianoaren aurrean jarri, eta berari oso gauza sinplea jotzea atera zitzaidan, modurik naturalean. Gizon apala eta atsegina zen, eta uste dut sinpatiaz hartu zuela nire bat-bateko erakustalditxoak. Gogoeta egiten dut, eta ateratzen dudana ondorioa da musika giza-kien arteko harremanak pizteko eta sakontzeko balio duela.

**Ikusten da oso goiz barneratu zenuela konposatzeko dohain hori.**

Bost urterekin hasi nintzen pianoa jotzen, eta, bi urteren buruan, nire soinu propioa bilatzen hasi nintzen; ekintza inkontzientea izan zen. Ez ziren gauza harri-garriak hasieran, baina, denborarekin, eta, pixkanaka, nire estiloa garatzen joan naiz.

**Pieza mordoia al duzue sortuta, honetzeko?**

Bai. Batzuk jada idatzita dauzkat, baina beste batzuk partituretara eramateko edo garatzeko ditut.



Piano jaialdia XVII. ediziora iritsi da. Lehen edizioko kartelean agertzen den marrazkia Uxue Riconek egin zuen. 5 urte zituen orduan. AIURRI

**Estilo propioa lortu duzula esan al daiteke?**

Aurreko batean lagun batek, nire musika definitzeko orduan, Rajmananinoven eta Pat Methenyren arteko nahasketa dela adierazi zidan. Gogoko ditut bi musikariak, eta nire sormen-lanak ezingo nituzke finkatu musika genero bakarrean.

**Zerk inspiratzen zaitu?**

Sentimendu edo emozio pertsonalak baino gehiago, eguneroko bizimodua. Esan behar dut kontrolaezina egiten zaidala sormen prozesua.

**Burutik pasa al zaizu sortutako piezekin noizbait kontzertua ematea?**

Ez dut baztertzen egunen batean hala egitea. Baina oraingoan, doinuak sortzea eta idazten segitzea dagokit. Eta gerokoak gero.

**Musika ikasketei dagokionez, nolako ibilbidea egin duzue?**

Andoaingo Udal Musika Eskolan hasi nintzen, eta gero Urnietako Lourdes Iriondo Musika Eskolan jarraitu nuen. 12 urterekin, Donostiako kontserbatoriorako jautzia eman, eta bertan sei urte egin nituen, musikako titulu profesionala lortu arte. Ondoren, Filologia Hispanikoa karrera eta irakaskuntzako masterra egin nituen.

**Oso gertutik bizi izan duzue beti Andoaingo Piano Jaialdia.**

Nola ez, txikitatik piano-jole izanik eta nire ama antolakuntzan egonik! Jaialdiak izugarriko dimentsioa hartu du gazteen erakusleho gisa, eta ospe han-

**"MUSIKA KOMERTZIALA NAGUSI DA EGUN, ETA PIANO KANPOAN GERATZEN DA"**

dia bereganatu. Baina ez da galdu hastapenetik bere-berea izan duen familia-giroko filosofia hori.

Amak -Myriam Ulanga- etxera ekarri ohi ditu antolaketak eragiten dituen buruhausteak, eta bikain datorkio entzungo dion pertsona gertu edukitzea. Bestela ere, jaialdiko arima diren Txitxu Castrok, Ainhoa Aiertzak eta hirurek laguntzaile taldea behar izaten dute atzealdean, eta neu ere laguntzen ahalegintzen naiz. Zenbait edizioetan, jaialdiko kartel ofiziala diseinatzea ere egokitu zait; 2006ko lehenbiziko ediziokoa, edota azken urtetakoak, nik eginak dira.

**Lan bikaina egiten ari da pianoaren zabalkunde.**

Piano elitearen instrumentua izatetik, herrikoia izatera igaro da, jende mota guztietara hurbildu da pianoa, eta eginkizun aberasgarri horretan erantzukizun handia daukate musika eskolek, eta baita Andoaingo Jaialdia bezalako ekimenek ere. **Interpretatzaile izatetik konposatzaile izatera ordea, badago alde...** Musika komertziala nagusi da egun, eta pianoa kanpoan geratzen da. Ahotsa, gitarra eta bateriaz osatutako taldea osatzea da ia beti lehenbiziko aukera, eta horretara bideratzen da sorkuntza gehiena. Apenas sortzen da errepertorio berria pianoarentzat.

Iruditzen zait, berez, piano-jotzaile gazte guztiak saiatzen direla sonoritate propioa esperimentatzen eta bilatzen, ni hasi nintzen eran. Baina, gero, gehienek ez dute bide horretatik jarraitzen. Arrazoi desberdinetatik: motibazio edo denbora falta, ezertarako ez duela balioko pentsatzen dutelako...



Lide Salbarredi Sarasola Urnietako AEK euskaltegiko egoitza. AIURRI

# “Gure hizkuntzari plaza, tokia eman nahi diogu Urnietan”

**LIDE SALBARREDI SARASOLA URNIETAKO KORRIKA-ARDURADUNA**

Apirilaren 8an iritsiko da Korrika Urnietara. Lasterketa iragartzeko, Korrika Eguna antolatu du AEK-k martxoaren 5ean, herriko eragileen laguntzarekin

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Martxoaren 31n abiatu eta, hamaika egunez, hara eta hona, eskuz esku nahiz ahoz aho ariko da euskararen lekukoa Euskal Herrian barrena. Alabaina, Korrikak itzulia egin ahal izateko, alde zureko prestaketa-lanetan dabil makina bat jende, tartean, Lide Salbarredi Sarasola Urnietako Korrika arduraduna. **Ate joka dugu 22. Korrika: “Hitzekin” da aurtengo leloa.**

Euskalduntasunaren gaineko hitz-jolasa da. Alde batetik, lehen

hitza euskaraz egitea eta horren aldeko konpromisoari eustea sustatu nahi dugu. Beste alde batetik, hitzari eutsi ez ezik, ekintzetara salto egiteko deia ere elikatzen dugu, euskaldun izaeraren atzean badago eta ekin-tzaile izatearen gaineko aldarrikapena, izan norbanako gisa, izan talde-eragile gisa.

**Eta, hain justu ere, lasterketa erraldoia iragartzeko, Korrika Eguna ospatuko duzue Urnietan.**

Hala da, bai, martxoaren 5ean, larunbatarekin, izango dugu

Korrika Eguna Urnietan. Babes handia sentitu dugu herritarren nahiz Udalaren partetik, makina bat eragilek hartu dutelako parte egun horren egitarauaren prestaketan. Agerian utzi du Korrika Eguna herri euskalduna izateko nahia dagoela Urnietan. Urtarrilean hasi ginen prestaketa-batzordeekin eta nahiko harrera ona izan zuten: bertan, zenbait eragile izan ziren, baita herritarrek ere. Hitzordua prestatu aurretik, Euskara Batzordea sortu genuen ikasturte

hasieran, izan ere, bazegoen kezka urnietarren artean euskarak herrian bizi duen errealitate linguistikoaren harira, tokia galtzen ari baita. Horrenbestez, gure hizkuntzari plaza, tokia eman nahi diogu Urnietan. Hori horrela, martxoaren 5ean, goizean, hiru plaza zeharkatuko ditugu, hizkuntzari aitortza egiteko eta zabaltzeko.

Lehenik eta behin, Plazido Muxikan izango gara, umeei zuzendutako paraxut-tailerrarekin. Jarraian, Kristina Solano eta gainerako herriko trikitilarien doinupean, Etxeberri plazarantz joko dugu. Bertan, Korrikaren gaineko ikuskizuna prestatu du, Joxe Mari Berasategiren gidaritzapean, Egape Show taldeak. Bestalde, Egape dantza Taldeak bi dantza egingo ditu. Azkenik, berriro ere trikitilariak girotuko dute San Juan plazarako bidea: Egape Dantza Taldeak beste bi pieza prestatu ditu; lehenik, aurtengo edizioako Korrikaren abestiaren dantza; eta, bigarrenik, herriari eta euskalgintzari egingandako ekarpena medio, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete omenduko dituzte dantzariak, Kontrapas kantuarekin. Horrekin batera, Kantazaun herriko taldea ere bertan izango da, eta, beren laguntzaz, abestia kantatuko dugu, bi omenduen etxean lore-sorta utzi bitartean.

Eguerdian, herri-bazkaria antolatu du Poxta Zahar elkarateak, Egape Ikastolan. Ostean, bingo musikatuak emango dio hasiera arratsaldeari eta Kilimak euskal runbako taldeak girotuko du iluntzea. Laster jarriko ditugu eskuragarri herri bazkariko sarrerak.

Horrez gain, aurki, Urnietako Udalak ikuskizun bat antolatuko du Korrikaren alde. Data zehazteke dago oraindik.

**Prestaketa handia eskatzen al du hamaika eguneko lasterketa erraldoiak?**

Korrikaren atzean jende asko dago lanean. Gainera, aurtengo edizioa Donostian bukatzeagatik, Gipuzkoako euskaltegiek ardurari handiago hartzen dute. Etorri bezala, joan egiten da Korrika, ziztu bizian. Baina horren atzean prestaketa handia dago, herriz herri nahiz eskualdeka, aurreikusitako egin behar direlako gerta daitezkeen ezusteko guztiak, lasterketa oztopatu ez dadin. Horrez gain, Korrika Txikia ere antolatzen da, eskolekin.

**Herritarrek, eragileek ere parte hartu dezakete ekimenari babesa ematen, ezta?**

Korrika Laguntzaile egin daitezke herritarrek 12 euroko diru-laguntzaren truke. Horrek hainbat abantaila dakartza: Korrikaren eta AEK-ren ekimenetan lehentasuna edo deskontuak dituzte. Halaber, asteroko zozketan parte hartu dezakete. Bestalde, petoa erosteko aukera dago 5 eurotan, bai euskaltegian, bai Korrikako furgoneta igaro baino lehenago.

Kontu korronte bidezko ekarpena egiterik dago (aek.eus helbidean dago eskura), baita kilometroa erosi eta lekukoa eramateko aukera ere. Jada eskuragarri dago Korrikako arropa zein materiala Hernaniko AEK euskaltegian edota online dendan. **Zulo handia eragin al zuen pandemiak Korrikan, eta, ondorioz, AEKn?**

80. hamarkadan hasi zen Korrika, behar bati erantzuteko: eskutik eskura doa hizkuntza, baina, apur bat, presaz, galdu ez dadin. Euskaltegiak ditugun baliabideak nahiko mugatuak dira, baina gauza bera gertatzen da euskara oinarri duten beste eragileetan ere, esate baterako, Ikastoletan. Horregatik, ditugu Nafarroa Oinez, Herri Urrats eta tankerako ekitaldiak, euskalgintzaren errealitatea horixe delako. Euskal hiztun komunitatearen beharari erantzuten dio bi urtean behin Korrikak. Hortaz, hiru urtez lasterketari ezin eutsi ahal izateak zuloa eragin zien euskaltegiei. Horren ordez, "Bultza!" ekimena antolatu genuen, tokian toki.

**Hutsuneak hutsune, indarrez hartuko al duzue aurtengo edizioa?**

Jakina. Eta ez euskaltegiaren bueltan abiltzan kideok soilik; herritar askok gorde ilusioa dute. Lasterketa hutsal bat baino gehiago da, euskararen alde dagoen aldarrikapen erraldoia: oso toki gutxitan ikusten da bi astez hizkuntza gutxitu baten alde korrika jendea gau eta egun.

**Zer ematen dio Korrikak Urnietari, Euskal Herriari?**

Euskarak eta horren inguruan lanean diharduten eragileek babes txikia jasotzen dute oraindik erakunde publikoen partetik. Baina gure hizkuntzak aurrera egin badu, elkarren arteko zaintza bermatu dugulako izan da hori. Babesaren atzean, bada aldarrikapena, bada plazaratzea, eta horren adierazle da Korrika.



Ansa txapeldun-ordea eta Barrenetxea txapelduna, Imanol Lasa txapelketako babeslearekin batera. ORIAMENDI



Barrenetxeak ez zion aukerarik eman Ansari. ORIAMENDI

# Hurrengoan beharko du!

**ERREMONTA** Endika Barrenetxeak aise menderatu zuen Imanol Ansa buruz buruko finalean, 30-22, sakean ikaragarri asmatuz. Lege onez onartu zuen porrota urnietarrak

**Andoni Urbistondo** HERNANI

Azken koska gainditu ezinik segitu beharko du Imanol Ansa urnietarrak. Bai hilabete batzuetan, behintzat. Buruz buruko finala galdu zuen larunbatean Endika Barrenetxearen aurka, 30-22, eta txapela jantzi ezinik jarraitu beharko du puska batean. Galtzen duen bosgarren finala da, eta datu txar horren atseka-bea aski agerikoa zen Imanolen bisaian partida bukatu osteko bere hitzetan. Urnietarra luze egon zen Galarretan, dutxatu ondoren, lagun eta ezagunekin mintzatzen, haiei azalpenak eman beharko balizkie bezala, neurria eman izan ez balu bezala.

Onartzeko moduko azalpena baita ez zuela neurrik eman. Zuzenagoa, ordea, Barrenetxeak ez ziola ematen utzi, hernaniarra oso nagusi izan zelako. 30-22 bukatu zen finala, baina Endika

oso nagusi izan zen, eta bere txapela ez zen kolokan egon inoiz. Akaso Imanol 9-8 aurreratu zenean, lehen hamar tantotetan elkarri mokoka aritu ostein. Une horretan, ordea, serio jarri zen txapelduna, eta txikitu egin zuen Imanol, 10-12 tantoko errenta handiak lortuz.

Ernegatu ere egin zen urnietarra azkar, finalak tantaz tanta nola alde egiten zion sumatu, eta ezer ezin zuela egin jabetuta. Espero bezala, Barrenetxeak bere sakean oinarritu zuen garaipena. Partidak lehen hiru tantoak hernaniarraren sakeak

**BARRENETXEAK BERE SAKEAN OINARRITU ZUEN GARAIPENA. DOZENA BAT SARTU ZIZKION ANSARI**

izan ziren, eta finalean dozena pasa sartu zizkion bere aurkariari. Ikaragarri asmatu zuen sakean, pilota asko lauuko falta-kokaturaz milimetrikoki, ezker paretaraz baztertuta. Imanolek sake asko erantzuteko, kolpatzeko aukerarik ere ez zuen izan, eta erretoa txapa gainean jartzea lortu zuenetan bukatzeko aukera ona uzten zion Barrenetxeari.

Finala Galarretara bertaratutako Urnietako zaleek nahi baino lehenago bukatu zen, zoritxarrez. Goiko solairuan zen Imanolen koadrila osoa, dozena pare bat lagun, eta pankarta polita zintzilikatu zuten, denok ikus zezaten: "Txikien izatetik, handien izatera, Aupa Ansa", erakusten zuen pankartak. Animo oihu latzak bota zizkioten lagun minek Imanoli, okerren zegoenean ere bai, baina etsita

bukatu zuen finala. Ezinean, baina bere porrota, eta Barrenetxearen nagusitasuna lege onez onartuz.

Esperantza baitzeukan. Urriza gabe, bere unea iritsi ote zen. Barrenetxeak sakean Juanenearen aurkako finalerdian adina ez asmatzeko esperantza. Txapeldunak, baina, asmatu egin zuen. Sakea hitza izan zuen ahotan Imanolek ETBn, Euskadi Irratian, lagunei azalpenak ematerakoan. Buru makur, damu ere bai, errudun tarteka babes-ten dutenek ez dutelako momentuz Imanol txapela jantzita ikusteko aukerarik. Triste, baina burua harro. Aurretik dituenak erremontista apartak direlako, eta haien aurka ari delako borrokan azken urteetan.

Finala bukatu eta bere lagunei keinu adierazgarria egin zien Imanolek eskuarekin: "Hurrengoan", esan zien. Txapeldunordearen saria jaso zuenean ere keinu bera, eta berarekin hitz batzuk partekatzeo aukera izan genuen gehienoi ere bai. Arantza daukalako sartua Ansak barru-barruan. Barrenetxeak oso ondo ezagutzen duen arantza, Ansa orain ezagutzen ari den horma bera ezagutu baitu Urrizaren erregetzaren aurrean. Elegante mintzatu zen Endika Euskadi Irratian, finala irabazita: "Imanol esan neu bere trantze berdinean nengoela orain dela 6 urte, eta begira gaur non nagoen. Seguru nago hemendik 4 urtera Imanol izango dela nire tokian dagoena". Hala bedi!



Urnietako  
udala

## Leizaran eta Urnieta garaile, aurrealdean jarraitu ahal izateko


**ESKUBALOIA** Emakumezkoen senior mailan laugarren eta bosgarren postuan doaz, lidergotzarik gertu

**Erredakzioa** ANDOAIN

Hamasei jardunaldi jokatu dira, eta txapelketa azken txanpan sartu da. Leizaran taldeak bolada ona darama eta asteburu honetan Egia erraz garaitu zuten (36-22). Garaipenari esker laugarren dago sailkapenean. Atzetik, puntu bakarrera, Urnieta dago. Bolada txarra moztu ahal izan zuten aurreko asteburuan, Oskarbi taldea erraz garaituz (35-17). Alor guztietan hobeak izan ziren. Garaipen horri esker, gainera, sailkapenaren goiko postuetara begira jarri dira.

**Euskal Liga**

Urnieta Artola Harategia senior mailako mutilek porrot berria jasan zuten Urdanetaren kantxan (25-16). Asteburu honetan atsedean izango dute, baino hurrengoan azken postuan dagoen Gure Auzune garaitu beharko dute.



Irati Zinkunegi, UKEkoa. AIURRI

### EMAKUMEZKOEN LIGA

#### 16. JARDUNALDIA

Leizaran-Egia 2	36-22
Urnieta-Legazpi	35-17

#### SAILKAPENA

1 Elgoibar	23 puntu
2 Ereintza	22 puntu
3 Tolosa	22 puntu
4 Leizaran	20 puntu
5 Urnieta	19 puntu

## Leizaran Ernio Inmobiliaria taldearen balentria

**ESKUBALOIA** Gipuzkoako gizonezko 1. Lurraldeko txapelketan jokatu du hurrengo denboraldian

**Erredakzioa** ANDOAIN

Bi jardunaldiren faltan, lehen mailara igoera ziurtatu dute.

### SENIOR MAILA, 2. MAILA

#### 16. JARDUNALDIA

Bergara-Leizaran	23-31
------------------	-------

#### 2. LURRALDEKO TXAPELKETA

1 Leizaran	30 puntu
2 Munttarpe	28 puntu
3 Txingudi	24 puntu
4 Pulpo	17 puntu

#### 17. JARDUNALDIA

Txingudi-Leizaran	Martxoak 6
-------------------	------------

#### 18. JARDUNALDIA

Leizaran-Hernani	Martxoak 13
------------------	-------------



EGUSPORT

## Gabirondo eta Mugertza, finalera

**HERRI KIROLAK** Aurreko igandean Urnietan jokatu zen Urrezko binakako aizkolari txapelketa, eta Gabirondo eta Mugertza izan ziren onenak. Bigarren sailkatu ziren Rekondo eta Soroa eta hirugarren Saralegi eta Amundarain. Emakumezkoetan Sorondo-Arruti eta Pikabea-Astondoa sailkatu ziren finalera.

## 25 lagunek eman dute izena, Luz Ardidengo eski irteerarako

**ESKIA** Martxoaren 5ean abiatuko dira, eta azken aste honetan elur-prezipitazioak espero dira estazio hartan

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Astebete eskas falta da Luz Ardidengo eski irteeraren eguna iristeko. Martxoaren 5erako antolatu du irteera Zanpatuz Mendi taldeak, Xabier Irastorza eta Xuban Ezeizaren gidaritzan

pean. Momentuz 25 lagunek eman dute izena, baina azken astean autobusa betetzetik gertu izatea espero dute antolatzaileek. Eski irteera antolatzen duten zazpi-garren urtea da. Lehen urteetan Candanchura joan ziren, ondo-

ren Aretara, eta azken urteetan Pirinio Garaietako Luz Ardiden eski estaziora.

**Elur prezipitazioak espero dira**


“Harrera ona egiten digute han, kontaktu onak ditugu, eta erraztasunak ematen dizkigute forfait-a erosi eta materiala alokatzeko. Jendeak Luz Ardidenen gustura egoten dela esaten digu, eta hara joaten jarraitzeko asmoa daukagu”, Irastorzak dioenez. “16 eta 35 urte arteko jendea joaten da normalean, eta giroa

ona izaten da. Antolatzaileok beharrezkoa den aholkularitza eta informazioa ematen diegu gurekin datozenei, eta ondoren bakoitza bere kasara ibiltzen da mendian gora eta behera”.

## TARTEA BADA, ORAINDIK, IZENA EMATEKO URNIETAKO SAN JUAN PLAZAKO KANTOI TABERNAN

Negua lehor doa, eta askok galdetu omen dute elur nahikorik izango ote den Luz Ardidengo eski pistetan. Irastorzaren arabera, “elur nahiko bada, gauetan hotza egin duelako eta elur artifiziala sortu ahal izan dutelako. Dena den, elur-prezipitazioak espero dira azken aste honetan, eta egun pasa ezin hobia izateko baldintzak beteko direla uste dugu”.

Tarterik bada, oraindik, izena emateko, Urnietako Kantoitabernan.



# KIROLOAK

Kale Berria, 2. ANDOAIN.

**943 591 806**

ormendikirolak@euskalnet.net



**Otsailaren 21etik 26ra itxita  
LASTER GARA ZUEKIN**

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 24

**URNIETA Hitzaldia**

ENBAK antolatuta, Nekazaritza Politika Bateratu berriaz (PAC).  
11:00 Lekaio.

**ANDOAIN Erakusketa**

Maskara lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai.  
Ots. 24, 25, 28: 18:00-19:30.  
Ots. 26: 10:30-13:30 / 18:00-20:00.  
Bastero, sarrera.

**ANDOAIN Inauteriak**

Mozorro festa Ludotekan eta sari-banaketa ekitaldia Basteron.  
17:00 Mozorro festa Ludotekan.  
17:30 Maskara lehiaketa.  
18:00 Txaranga kalez kale.

## OSTIRALA 25

**ANDOAIN Inauteriak**

Hitzordu ezberdinak, inauteri giroko ostiralean.  
17:00 Playback saioa Ludotekan.  
17:30 Bingo berezia Gazte Lokalean.  
20:30 Gontzal Mendibil Basteron.

**ANDOAIN Erakusketa**

Trentxiki elkartearen erakusketaz gozatzeko azken eguna.  
Ohiko ordutegia. Bastero.

## LARUNBATA 26

**URNIETA Inauteriak**

Poxta Zahar gazte taldeak, bestalde, ekitaldi sorta iragarri du.



Kitadelpare taldea. KDP

**URNIETA Inauteri giroko larunbata**

Trikipoteoa, txaranga, herri bazkaria, DJ saioa, kalejira... Urnietan mozorro festa ekitaldiz beterik dator. Ekitaldiak Etxeberrieta plazan izango dira arratsaldean, eta herrigunean goizean zehar.  
Otsailak 26, larunbata. Egun osoan zehar.

12:00 Trikipoteoa Guriatik hasita.  
14:00 Herri bazkaria Egapen.  
17:00 Kalejira: The Roristak.

10:30 Buruhandi eta Erraldoien konpartsa kalejira.  
Egun osoan zehar konpartsa kalean.

Udalak bi jarduera prestatu ditu:  
12:00-14:00 Kitadelpare txarangaren kalejira, San Juan plazatik abiatuta.  
18:00-21:00 DJ Katxorro Etxeberri plazan. Sarrera libre izango da.

**ANDOAIN Inauteriak**

Erraldoi eta Buruhandien kalejira eta konpartsen emanaldiak toki zehaztuta.

## IGANDEA 27

**ANDOAIN Inauteriak**

Olagain Txistularien kalejira eta konpartsen emanaldiak toki zehaztuta.  
11:30 Olagain Txistularien kalejira Goikoplazatik.  
Goizean zehar konpartsa kalean.

Dokumentala,  
Urnietan

Indarkeria matxistaren eta egungo kontsumo-ereduaren arteko harremanaren inguruan hausnartu nahi dute Urnietan, datorren martxoaren 4an. Ikus-entzunezkoa Saroben eskainiko dute, arratsaldeko 18:00tan hasita. Paula Iglesias eta Marta Gomez dira "Fabricando Mujeres" ikus-entzunezkoaren zuzendariak.



FABRICANDOMUJERES

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Belfast**


Larunbata, 26. 19:30, 22:00.  
Igandea, 27. 19:30.  
Astlehena, 28. 19:30, 22:00.

**Uncharted**

Larunbata, 26. 17:00.  
Igandea, 27. 17:00.

**OPERA BASTERON****Tosca**

Martxoak, 15.  
19:30.



## SINOPSIS

**BELFAST**

**Zuzendaria eta gidioa:** Kenneth Branagh. **Aktoreak:** Jude Hill, Caitriona Balfe, Jamie Dornan, Judi Dench... **Generoa:** Familia, haurtzarora. **Musika:** Van Morrison. **Iraupena:** 98 minutu.

## Kenneth Branagh-en azkena

60ko hamarkadaren amaierako Ipar Irlanda zalapartatsuan girotutako drama. Buddy txikiaren atzetik doa kamera, langileen arteko borroka, kultura aldaketak, erlijioen arteko gorrotoa eta indarkeria sektarioa nagusi diren giroan hazten den bitartean.

Buddyk arazoetatik urrunduko duen etorkizun batekin egiten du amets. Bitartean, zinemarako duen grinarekin batera, bere klaseko gustuko neskatoarengan eta bere guraso eta aitona-amona karismatikoengan aurkitzen du kontsolamendua.

**UNCHARTED**

**Zuzendaria:** Ruben Fleischer. **Aktoreak:** Tom Holland, Mark Wahlberg, Antonio Banderas, Tati Gabrielle.. **Herrialdea:** AEB. **Generoa:** Abenturak. **Iraupena:** 115 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

## Drake gaztearen abenturak

Kritikak eta kontsumitzaileek gehien txalotzen duten bideojokoetako batean oinarrituta, Nathan Drake da filmaren protagonista. Gaztea,

aztia eta karismatikoa da. Bere lehen abenturan, Victor Sullivan lankide burutsuaren eskutik, altxo-ehiztari gisa agertzen da.



Estela Cuevas urnietarra, "Estela" Egunean Behin lehiaketan. AIURRI

## Egunean Behin lehiaketa laugarren astean murgildu da

Codesyntaxek sustatutako lehiaketan ehunka euskaltzale jokatzeko ari dira "Aiurri" taldean

### Erredakzioa ANDOAIN

Otsailaren 14tik 20ko zazpi partidak jokatu eta gero, Aiurri taldeko partaideen artean zozketa egin eta irabazlea "Estela" izan zen. Estela Cuevas urnietarra da eta hark eraman du etxera Mizpiradi sagardotegiko kaxa.

Aurreko bi astetako irabazleak "Indargorri" eta "Mirene" izan dira. Lehiaketa aurrera doa eta dagoeneko martxan da laugarren astea. Aiurri.eus webgunean atal berezia sortu da, eta oraindik ere txapelketan parte hartzeko aukera dago "Aiurri" izeneko taldera batuz gero.



Inge andoaindarrak "Indargorri" erabiltzailearen saria jaso zuen, Aiurri. AIURRI

## Leyçaur aldizkari historikoaren zenbaki berria argitaratu dute

Aurkezpen ekitaldia ostiral honetan izango da, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. 18:30ean hasita

### Erredakzioa ANDOAIN

Leyçaur aldizkaria 15 eurotan salgai izango da. Lau aztergai ditu aldizkariak:

- **Andoaingo Goikoplaza, Aritz Diez Oronoz.** Goikoplaza sortu zenetik, XIX. mendean zehar jasotako gatazken eragina, pasaden mendeko 60 eta 70 hamarkadetan pairatutako sutsipenak, eta, azkenik, Montserrat Ruiz Fabrek aurrera emandako berreraiketaz aztergai dira.
- **Natalio Pajarin eta Sorabillako eskola, Karmele Otaegi Negredo.** Maisuaren bizitza eta batez ere Sorabillako eskolarekin zerikusi zuena azaldu da.
- **Zinea eta zinemak Andoainen, Marta Trutxuelo Garcia.** Zazpigarren artea ezagutu duguna ikertzen da gure herria abiapuntua hartuta: non botatzen zituzten filmak, ze filmak, eta zineakin zerikusirik zuten beste arloak: zentsura, 'destape'...



Aurtengo azala. ARTXIBOA

- **Andoaingo hirigintza ardatz duen etxebizitza auziarekiko hurbilketa, Xabat Petrikorena Uranga.** Etxebizitzari buruzko hausnarketa: alokairua, jabetza eta horren atzetik dagoen filosofia. Gaur egungo joerak aztergai dira.



Maiza zinemaren sarbidea, Kale Nagusitik. EGEA

## ZORION AGURRAK



URNIETA  
**Zorionak, Urko**  
Otsailaren 27an 9 urte beteko dituzu eta oso ondo pasa dezazula opa nahi dizugu, bai familiakin, bai lagunekin. Muxu handi bat.

### Urte askotarako!

- [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

## ODOL-EMAILEAK



### HURRENGO HITZORDUAK

- Martxoak 14, astelehena.**  
16:30-20:30. Arrate, Andoain.
- Martxoak 15, asteartea.**  
16:30-20:30. Lekaio, Urnieta.

## TELEFONO-ZENBAKIAK

### OSASUN ALORREKOAK

- Andoain: 943 006 670.
- Urnieta: 943 006 680.
- Osasun Aholkuak: 900 203 050.

## Aldaketak trafikoan

Idiazabal kalean, Zaldundegi parean, espaloia zabaltzeko lanei ekin diete. Eta horrek trafikoan eragin handia izan du. Hainbat kaletan norabide aldaketak izan dira eta beste batzuk itxi egin dituzte. Trafikoan aldaketa handia eragin du horrek. Udalak aditzera eman duenez, behin-behineko neurri hauek igandera bitarte luzatuko dira.



AIURRI



AIURRI

# "Inoiz baino indartsuago itzuli gara"

## SANTA KRUTZ JAI BATZORDEA FESTAZALEAK

Jai Batzordeko kideak Santakruzak antolatzeko lanean dabilza. Garaiko egoerara egokitu eta ohiko moduan antolatzeko ahaleginetan ari dira



Jai Batzordeko hainbat kide, aste honetako bileran. AIURRI

### Mikel Arberas ANDOAIN

**la bi hilabete eskas geratzen dira Santakruz jaiak ospatzeko. Asko dira egingo ote diren galdetzen dutenak...**

Egingo dira, bai. Baldintzatuta egongo dira mementoan memen-

toko egoerara, baina modu ohikoago batean egingo direla zailantzarik ez egin.

Esanak esan, gogo handia dugu bi urteren ostean, herriari behar bezalako Santakruz jaiak eskaintzeko.

**Jada, festak antolatzeko lanean ari zarete eta bilera ugari egin dituzue, ezta?**

Hasiera batean, jaiak ohiko moduan antolatzen hasi ginen eta, badaezpada, ordezko plan bat egitea pentsatu genuen, pandemia

medio. Udalaren aldetik, hainbat ekimen egiteko ezetza jaso genuen, baina, bat-batean, neurri murriztaileak kendu eta inauteriak egingo zirela jakin genuen; horrek eszenatoki berri batera eraman gintuen. Egun, normaltasunez antolatzen gabiltza.

**Santakruzetako talde-eragileek nolako jarrera azaldu dute jaiak begira?**

Pasa den astean, eragileekin elkartu ginen festen gainean duten iritzia jakiteko; gogo bizia dute Santakruzetan parte hartzeko eta bilera baikorra izan zen. Horrez gain, inauteriak ospatzearekin batera, Santakruzak normaltasunez antolatzeko itxaropena handia da.

Egia da, ekitaldi jendetsu batzuk egiteko formula bilatzen ari garela; esaterako, sagardodastaketarena edo bazkariena. Izan ere, jende ugari pilatzen den hitzorduak dira. Horrez gain, Udaletxeak zer egiten edo ez egiten uzten digun jakin behar dugu. Hala eta guztiz ere, gu prest gaude egitarau ohiko moduan plazaratzeko.

**Oraindik ez-ohiko egoeran gaudela medio, bost eguneko egitaraua antolatzea ez da lan erraza izango. Laguntzarik jaso al duzue herritarrengandik eta Udalarengandik?**

Sorpresa polita izan da herritar eta eragile batzuk erakutsi duten konpromezua. Esaterako, Kua-drilla Eguneako antolaketa taldean hainbat gazte batu dira lagun-

tzeko prest. Talde-eragileek ere gogo bizia erakutsi dute Santakruzak ahalik eta ondoen ospatzeko.

Bestalde, Udalarengandik jaso dugun partida ekonomikoa 2019ko berdina da (~30.000) eta erosahalmena izugarri jaitsi dela medio inurri-lana egin beharko dugu jaiak diru gutxiagorekin antolatzeko. Udaletik esan zigiten, aurrekontua onartu arte, Santakruzak antolatzeko dirukopurua aurkezteko aukera egonen zela, prezioen igoera kontutan edukita. Jaso genuen mezua baikorra izan zen hasiera batean, baina aurreko astean ezezkoa eman zigiten.

Laburbilduz, 2019ko partida ekonomikoa berdinarekin 2022an jaiak antolatzeko ahalmen ekonomikoa askoz ere txikiagoa da. Bide batez, aipatu nahiko genuke, Santakruzetako jaiak antolatzeko diru kantitatea txikia izan arren, auzoko beste festen diru partida askoz ere txikiagoa dela. Auzoko festak gauzatuko badira, herritarren boluntarizagatik izango da, ez digu inork soldata bat ordaintzen, herri-gintza da.

**INURRI-LANA  
EGIN BEHARKO DUGU  
JAIK DIRU  
GUTXIAGOREKIN  
ANTOLATZEKO**



**ASKATASUN  
EGUZKIA  
BAINO  
BEHARRAGO**

**JULENE AZPEITIA GOMEZ  
(1888-1980): BIOGRAFIA ETA OBRA**

**SALGAI: online, larramendibazkuna.eus**

